



## ERAKUNDE ZERRENDA

**Synergie des Femmes Pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS):** Kongoko Errepublikako Demokratikoaren ekialdean, Nord Kivu eskualdeko 35 emakume-elkarte biltzen ditu mugimendu horrek, eta **Justine Masika Bihamba** ekintzailea da talde zabal horren koordinatzailea. Herraldeko emakumeek jasaten duten sexu-indarkeriarekin amaitzea da mugimenduaren helburua. Horretarako, komunitateekin egiten dute lan, gizartea **sentsibilizatzeko** eta biktimei **laguntza osoa** emateko. Horrez gain, biktimekin egiten dute lan, haientzat **justizia** eta egindako **kaltearen erreparazioa** lortzeko; hala, lege-prozesuetan laguntzen diete, eta lege-zigorgabetasuna bertan behera uzteko lanean dihardute.

**Okapi Irratia:** Irrati horretatik, **Caddy Adzuba** kazetari eta giza eskubideen aldeko ekintzaile kongotarrak bere herraldean emakumeek bizi duten egoera eta jasaten dituzten giza eskubideen urraketa etengabeak salatzen ditu, mehatxupean baina etsi gabe. Lan hori dela eta, besteak beste, Asturiasko printzearen Adiskidetze Saria jaso zuen 2014. urtean. Telefonia mugikorreko multinazionalen jarduna salatzen du behin eta berriro, interes ekonomikoengatik K.E.D.-ko ekialdeko gatazka finantzatzen dutelako, eta agerian uzten du zer botere duten enpresa horiek; botere horren adierazle, mineralak legez kanpo erosten dituzten multinazionalen izena argitara ematen duen NBEren txosten bat bahitzea lortu dute enpresa horiek, presioei esker.<sup>1</sup>

**Maman Shujaa Media Center:** **Neema Namadamu** ekintzaileak sortutako Internet eta baliabide digitalen zentro bat da; hain zuzen, tresna digitalen erabilerari buruzko prestakuntza ematen dute zentro horretan. Zentroaren helburua da emakumei ahotsa ematea, beren bizipenen berri munduari kontatzeko, eta emakumeen komunitate bat sortzea, kontzientzia globalarekin eta herri mailan eragiteko eta aldaketak sortzeko gaitasunarekin.

**Rebecca Masika Katsuva:** Emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea, aurtengo otsailen zendua. Sexu-indarkeria jasan ondoren, elkarre bat sortu zuen, "**Association des Personnes Déshéritées Unies pour le Développement**" (APDUD), gerraren eta bortxaketen biktimei babesa eta laguntza emateko. Elkarrekin, gaur egun, 50 etxe inguru ditu helburu horretara bideratuta.

**SOFEPADI** (Bakearen eta Garapen Osoaren aldeko Emakumeen Elkartasuna). Elkarrekin honek komunitate mailako 40 emakume-talde biltzen ditu Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdean. Elkarrekin kideek emakumeen giza eskubideak babestearen alde egiten dute lan eta **laguntza zuzena ematen diete sexu-indarkeriaren biktimei**. **Julienne Lusenge** da elkarrekin presidentea; 1998an hasi zen ekintzaile hori lanean, indarkeria-ekintzak dokumentatzen eta publiko egiten.

**South Kivu Women's Media Association:** **Chouchou Nemegabe** kazetariak sortu zuen elkarrekin hau, **emakumeen lana eta jarduna ikusgarri egiteko eta komunikabideetan haien presentzia zabaltzeko**. Elkarrekin horretako kideek hainbat lan egiten dituzte: **emakumeen eskubideei buruzko informazioa ematen dute eta haien eskubideak babesten dituzte, adierazpen-askatasunaren eta genero-berdintasunaren alde jarduten dute, baita erakunde ofizialetan emakumeek presentzia handiagoa izateko ere, gaur egun sinbolikoa baita.**

<sup>1</sup> <http://www.pikaramagazine.com/2016/03/caddy-adzuba-multinationales-congo/>

-en proiektu bat

lortzearen alde

Laguntzaileak:



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)



[www.gatazkarigabekoteknologia.org](http://www.gatazkarigabekoteknologia.org)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzeta Bulegoa  
Negociado de Cooperación